

FREEDOM FIGHTERS

- *Gizon eta emakume estatubatuarrok, nazio osoari zuzentzen natzaio gaurko egun honetan gure nazioak Irak-ek Al-Qaeda eta terroristei ematen dien babesari gogor erantzungo diogula esateko. Ez dugu onartuko Ameriketako Estatu Batuen segurtasuna arriskuan jar dezakeen estaturik, ez dugu onartuko NBEren arauak era horretan hausten dituen estaturik. Zin dagizuet gogor borrokatuko dugula demokraziaren eta askatasunaren aldeko gainerako herrialdeekin batera, eta garaipena gurea izango da. Argi esan behar zaio Saddam Hussein bere ekintzek ondorioak izango dituztela, eta garesti ordainduko duela terroristei babesa ematea eta suntsipen handiko armak izatea. Era honetan, berehala ekingo diogu irakiar tropen aurkako ofentsibari, eta, berriz ere, geu izango gara irakiarrak Saddam tiranoaren diktaduratik askatuko dituen koalizioaren buru. Azkenik, mezu argi bat Saddam eta bere soldaduentzat, gure mutilek ez dute gupidarik izango kriminalekin, aukera onena errendizioa duzue! Gabon pasa amerikarrok.*

-Bai!

-Hori, hori!

-Azkenean!

Halaxe da bai, badirudi azkenean eraso egin behar diegula terroristei. Horretarakoxe etorri ginen eta bazen garaia, dagoeneko asper-asper eginda baikeunden.. Bronx-en 101. airez garraiatutako 101. dibisioko kide izan nahi nuen galdetu zidatenetik ez dut besterik izan buruan, gure nazioaren aldeko borrokari lotzea, askatasuna defendatzea AEBekin amaitzea beste helbururik ez dutenen aurrean. Oraindik gogoan dut terroristak akabatu ahalko genituela agindu zigtela.

George Bush lehendakariaren hitzaldia amaitua zegoenez, Williams jeneralak eraso laster abiatuko dela esan digu, segurtasun arrazoirengatik ezin digutela eguna zehaztu, baina ez dela urrun.

-Jamal! Jaiki ohetik alferrontzi hori! Ordua duzu Kahckiri jauna ikustera joateko. Gogoan izan berant ez iristeko agindu zizula.

-Bai, ama, bai, banoa... Eman iezazkidazu bost minutu gehiago, bost bakarrik. Gainera zerorrek ere badakizu di-da batean iristen naizela bere bulegora, Ali Salih etorbidearen amaieran dago eta!

-Bai, baina joan aurretik gogoratu ahuntzak jetzi behar dituzula.

-Ongi da, banoa.

Gelatik irten eta gosaltzeko datil pare bat eta eztizko opil bat jan bezain laster, ukuilura abiatu naiz. Gaurkoan denboraz sobera ez nabilenez, pare bat edo jetziko ditut, nahikoa izango da Ahmed eta Zaidarentzat.

Garaia heldu dela dirudi, aitonak txiki-txikitatik esaten zuen euren garaian askoz ere borrokalariagoak zirela, hala garaitu zituztela ingelesak. Orduan sortu omen zen irakiar estatu askea, eta orain guri dagokigu aspaldi lorturiko askatasun hori bermatzea, ez dute bada usteko amerikarrek irakiar lur santua musu truk emango diegula, ezta? Ez diegu utziko, ez horixe. Saddamek agindutakoa hitzez hitz betetzeko prest nago, aita zenak 90ean egin bezala, neure bizia bera eman behar badut ere.

Etzetik irten eta karrikan behera abiatu naiz. Kaleak huts-hutsik, isiltasuna da nagusi martxoaren hogeit hamar honetan. Irratian esan dute etsaiak prest daudela gure aurka

egiteko, une batetik bestera jarriko dutela abian bonbardaketa, baina argi eduki behar dute ez dutela irakiar herria makurraraziko!

4:00am.

-Ohetik jaikitze ordua alferrontziok. Williams jenerala naiz, airez garraiatutako 101. dibisiokoa. Gaur bertan Ramadi hiri gainean salto egingo duzue lurrez abiatu behar dugun erasoaldia arrakastatsua dela ziurtatzeko. Ez zenukete arazo berezirik izan behar, azken egunetan jakinarazi zaizuen bezala, Saddemen 450000 gizonetatik 100.000k edo desertatu egin baitute. Gainera, eliteko tropa oro Nasiriyako zubia defendatzera bideratu dute, beraz, ez zenukete inolako eragozpenik izan behar zuen lana egiteko. Bertan bi helburu nagusi izango dituzue: batetik, Guardia Errepublikarraren azken indarrekin amaitzea; eta, bertetik, Baath alderdiaren bulegoen jabe egitea. Beraz, badakizue, zoazte Jaunaren izenean eta jakizue estatubatuar oro harro dagoela zuen ekintzez. Heriotza Saddamentzat! Lanera!

Goizeko laurak eta dagoeneko altxatu egin behar! Hau ez da gero ejertzitoaren eskuorrietan aipatzen zutena! Baina, zer egingo diogu ba, askatasuna defendatzera etorri gara eta horrek hau eta askoz gehiago merezi du. Jangelara joan beharko dugu, ea gaurkoan gosari bereziren bat edo badugun, zeharo nazkatuta nago betiko opiltxo horiekin.

Jangelara iritsi eta hutsik dagoela ohartu gara, ez ei dago gosaririk gaur, helikopteroko bidaia ez omen da eta oso atsegina izango. Fusila hartu, kaskoa jarri, eta amen batean martxan jarri da kanpamentu osoa. Egun garrantzitsua behar du gaurkoak ez bairik gabe. Blackhawk "txorietako" batera abiatu gara lasterka. Honako hauxe dagokigu Stephe, Joe, Manuel eta niri. Barruan, koronel bat eta pilotua. Errespetuzko keinua egin diogu, baina, ez digu erantzun, zirkinik ere ez.

Hegaldatu bezain laster hasi zaigu koronela gure misioaren nondik norakoak azaltzen. Williams jeneralak aipatu bezala, Baath alderdiaren egoitza hartzea da helburu nagusietako bat, eta, horretarako, garrantzitsua iruditu zaie ondoko eskolaren kontrola hartzea. Horixe izan da guri egokitu zaiguna, hala ere, ez dut oso gustuko:

-Koronela, eskola hartu behar omen dugu, baina ez da al bertan errefuxiatutik edo umerik egongo? Ez al dituzte bada honelako tokiak erabiltzen babesgune gisa?

- Baita zera ere! Hor bilatuko duzuen bakarra 12. tanke taldea txiki-txiki egin dezakeen metrailadore-habiaren bat da, ez duzue arazorik izango. Zuen lana argia da, posizioa lortu, bertan babesgune egokian jarri eta arratsaldeko zazpiak arte itxaron, orduan iritsiko baitira lurreko tropak.

Blackhawk hegazkinak gora egiten duen heinean, gaur gerta dakigukeenaz beldurtzen hasi naiz. Nork ziurtatzen digu, bada, ez gaituztela akabatuko? Hil. Horixe da hotzikarak eragiten dizkidan hitza, desertuko airea kiskalgarria izan arren. Eta ez neure heriotzaz beldur naizelako bakarrik, baita beste norbait hiltzeko prest ez nagoelako ere. Bronx-eko bizimodu latzetik ihesi etorri, droga, krimen eta heriotza ingurune batetik ihesi etorri, azkenean geu ere hiltzaile bihurtzeko. Unea iristean, aurrez kontsolatzen ninduten askatzaile gisako hitzek ezer gutxi balio dute orain.

Ali Salih etorbidera iritsi baino lehenago, etxetik hogeita hamarren bat metrora, sekulako ezustekoa gertatu da. Bat-batean, isiltasuna nagusitu da auzune osoan, bonbardaketen berri ematen duten sirenen uluen ondorengo isiltasuna, isiltasun lehorra. Handik gutxira lehen leherketak entzun ahal izan ditugu, urrun, baina, ozen, oso ozen.

Auto baten gainera igo eta hiriaren erdigunean kokaturik dagoen telebista-antena lurrera jausten ikusi ahal izan dut, sugarretan bilduta.

Erreakzionatu ezinik geratu naiz lipar batez, hegazkinen zaratots izugarria ni nengoen lekutik hur entzun dudan arte. Bi aldiz pentsatu gabe lurrera bota dut neure burua, eta jarraian, autoaren azpian sartu naiz. Amerikar kabroi horiek gerra deklaratu ere egin gabe egin digute eraso! Madarikatuak!

Hamar bat minutuz mugitu ere egin gabe auto azpian ezkutatuta egon naiz, sirenen hotsa isildu arte. Orduan, lurretik ahal bezain lasterren altxatu eta korrika joan naiz alderdiaren egoitzaraino, edo hobekiago esanda, egoitza zegoen tokiraino. Lehen bulegoak zeuden tokian, harri, porlan eta burdin mordo bat besterik ez dago. Apurka-apurka, ingurumarietako etxeetatik leherketatik bizirik atera direnak kalera irteten hasi dira, gure begien aurrean ageri den egundoko txikizio eta triskantza sinetsi ezinda.

Gerturatu ahala, gorputz-atalak ere nabaritu ahal izan ditut hondakinen artean, guztiz odoleztatuta. Oraingoan ere Mendebaldeko herrialdeetan base militar baten aurkako eraso izan dela edo esango dute, baina benetan jakingo balute zer gertatu den!

Hilotzak harri azpietatik ateratzeko lanetan ari ginela, ejertzitoko kamioi bat iritsi da, azken uneko errekrutamendua burutzeko. Nik auzuneko boluntario taldeetan izena emateko hitzordua gaur nuenez, segituan hurbildu naiz, eta oinarri-oinarrizko armen erabilera azaldu ondoren, taldeetan banatu gaituzte. Nire taldetxoaren ardura izango da eskola ingurua eta Baath alderdiaren egoitza zenaren inguruak zaintzea.

Luze barik eskolako azken pisuan kokatu gara, leiho erraldoi batetik inguru osoaren ikuspegi bikaina dugulako zainketa lanetarako. Larrutik ordaindu behar dute inbaditzaileek gaur goizean egindakoa eta gure aberria zapaltzera ausartu izana!

Helikopteroa eskola ingurura hurbiltzen ari da eta, Roberten eta Joeren harridurarako, irakiarren defentsak uste baino sendoagoak direla dirudi. Telebista kateek eta ejertzitoko goi-karguek ahul direla esaten dute etengabe, baina gerra propaganda hutsa besterik ez ote?

Eskolaren ondoan dagoen parketxoan utziko dituela argitu die pilotuak, eta berehala sokak askatu ditu laurak labainka jaits daitezen. Lehenengoa seguruen joaten dena dela esan ohi da askotan, baina oraingoan ez da hala izan. Manuel ziztu betean soka behera zihoanean tiro hots bakar bat entzun dute estatubatuarrek, eta jarraian portorrikoarra lurrera erortzen ikusi dute, hareaz beteriko zakua bailitzan. Antza denez, ez dira ohartu ere egin eskolako leiho batean zain dituztela zenbait mutil gazte. Leihotik duten ikuspegi paregabeaz baliatuz, Jamalek ez du hutsik egin bere fusilarekin tiro egiterakoan.

Amerikarrek, leiho atzean bildurik dauden gazteen kokalekua asmatu ezinda, pare bat kale urrunago lur hartzea erabaki dute, ondoren, handik eskolara hurbiltzeko.

Jamal eta bere burkideak bitartean, beheko solairuetara jaitsi dira estatubatuarrek leiho atzean zeudela ohartuko zirelakoan. Izan ere, jakin badakite arma eta prestakuntza aldetik askoz gehiago direla, baina, hala ere, aurrez aurre izango dituzte, garesti ordainduko dute euren Ramadi hirian sartzea ausartu izana.

Ahalik isilen, eskola inguruetara hurbildu gara, geure buruak horma eta autoen atzean ezkutatu. Irrati bidez eman dugu gure adiskide Manuelen heriotzaren berri, badirudi borroketan eroritako lehen estatubatuarra izan dela. Bere heriotza ez da alferrikakoa izango!

Irrati bidez eskatu dut era berean musika jar diezadatela borroka eremuan sartu baino lehen, motibatuta egoteko. Berehala entzun ahal izan dut hain gustuko dudana rap musika eta lasterka bizian abiatu gara eskola eraikinerat. Sarrera nagusira sartu, eta lehen solairua segurua dela ziurtatzeko helburuarekin, granada mordoxka bota dugu batzar aretora. Segituan aditu ditugu negar hotsak eta aieneak, baina ez dirudite gizon helduenak... Niri behintzat nire lehengusina Ashleen gogorarazten didate, baloia kendu eta zirikatzen nuenean lez ari da norbait negarrez hor barruan.

Leherketa gertatu bezain pronto isildu dira negarrak, eta berriz ere, musika entzun ahal izan dut ozen eta garbi: *“Kill them all! Fuck those who wanna kill you! Don't fear!”* Hortantxe ari gara, bada! *“We are the ones who protect you, don't you remember your insanity? We will catch and destroy you, as if you were a child!”*

Aretora sartutakoan, ordea, ezusteko desatsegina izan dugu. Lurrean odoleztatuta eta gorputzak txiki-txiki eginda daudenak ez dira soldaduak, ezta gizonezkoak ere. Haur eta emakumeak dira! Bronxen egunero kalean jolasten ikusten nituenen berdinak dira, non daude guri aipatu dizkiguten terroristak? Non suntsipen handiko armak? Engainatu gaituzte. Hemen irakiar tropak biltzen omen ziren, eta hara zer topatu dugun! Mugitu ezinik geratu naiz, lelotuta, egin berri duguna sinetsi ezinik...

Handi pixka batera buelta eman diot, ordea. Hauek hemen bazeuden terroristek giza ezkutu gisa erabili nahi zituztelako izango zen. Ez dago beste aukerarik. Eta, jakin ezazu gaztetxo hauetakoren bat ez ote zen etorkizunean irailaren 11koa bezalako eraso bat egiteko prestatzen ariuko. Merezita zuten, ezbairek gabe.

Leherketa batek ia hegan bidali gaitu. Gure oinazpiko lurra bizirik balego bezala izan da, bat-batean sekulako astinaldia nabaritu dugu, lurrikara zela zirudien. Segituan konturatu gara leherketa edo izan behar zuela, eta Salim oroitu da bere familia osoa batzar aretoan babesturik zegoela, goizeko bonbardaketetan etxea galdu ondoren. Burua galduta, eta bere familiari gerta zekiokkeenaz izututa, korridorearen amaieraraino joan da ziztu bizian. Jarraitzen saiatu arren, ez dugu hura garaiz harrapatzerik izan, eta gu ohartzerako beheko solairuan zegoen “Allah da handiena!” garrasika.

Eskaileretan behera gindoazela ikusi dugu Salim aretoko atea bultzaka irekitzen, eta, ireki bezain laster, metrailadore baten hots burrunbatsua entzun da. Salim hegan ikusi dugu, balek gorputza alderik alde zeharkatzen zioten bitartean. Lurrera erori da bizkarrez, hots lehor, gogorra eginez. Zerraldo.

Salim lurrean egon arren, poliki-poliki atera hurbildu gara eta eraso egin diegu amerikarrei. Hiru direla uste dut, eta birritan pentsatu gabe tiro egin diegu gupidagabeki. Eurek ere gauza bera egin dute. Fusila altxa eta ilegorri bati tiro egin diot, berak gauza bera egiten zuen une berean...

-Gogoan dut irakiarrek eraso egin zigutela. Lehenik eta behin, bat bakarra etorri zen, ero moduan sartu zen tiroka eta zori hutsez lortu genuen bizirik irtetea. Haren atzetik etorri ziren beste bospasei, denak armatuta eta tiroka. Oroitzen dudana azken gauza mutil koxkor baten begi-parea ikusi izana da, begi beltz eta suminduak zituen. Amorratuta zeuden, antza, baliteke hildako emakume eta haurren artean familiartekoren bat egotea edo.

-Halaxe da. Salim Fayed izan zen eraso egin zizuena, eta aretoan haren lehengusinak zeuden. Ongi egin zenuten haiek akabatzen, Salim horren aita ejertzitoko buruetako bat da eta familia osoa mehatxua zen gure tropen segurtasunarentzat.

-Orain arte ez dizut galdetu, baina non daude Stephe eta Joe? Salbu al dira?-galdetu zuen Robertek larrituta, baina, medikuaren begirada tristeak bere kezka handitu zuen.

-Ba... Stephen Radcliff ofiziala eta Joe Jonhson tenientea borroka eremuan ohore handiz borrokatu ziren, eta baita askatasunaren alde bizia eman ere.

-Nola? Ez, ez... Hori ez!-esaten zuen Robertek negar malko artean. Hori ez zuen inork aurrez abisatzen, Bushek berak ere ez zituen hildakoak aipatzen bere hitzaldi politetan.

Robertek berak ere zauri larriak zituen bere gorputzean, hiru bala jaso zituen zango batean, eta, batek izterrezurra mila puskatan egin zionez, moztu beste erremediorik ez zuten izan.

Eritegian hainbat egun egin zituen Robertek bere osasun egoera egonkortu zedin. Tarte horretan izan zuen Ramadin gertatuaz informazioa jasotzeko astirik ere; besteak beste, jakin ahal izan zuen ozta-ozta salbatu zirela, beste helikoptero batek jazotakoa ikusi zuelako hain zuzen ere. Gainera, marine ausart haiei esker lortu zuten taldetxo hartako kideren bat preso hartzea.

Astebeteren buruan, Roberti esan zioten etxera itzuli ahal izango zuela. Bere hegazkina hurrengo egunean irten zen, bera eta beste zenbait zaurituz gain, preso "arriskutsuenak" ere bazeramatzala. Eskailera mekanikoan igo zuten Robert B-52 hegazkin erraldoira eta aurrealdeko eserleku erosoetan jesarri zen.

Handik pixka batera, laranja koloreko jantziak soinean eta begirada galdua, zazpi gizon igo zituzten bultzakada zakarrak emanez, denak arabiarrak. Hauek ez ziren ordura arte igotakoak bezalakoak, esku-burdinez lotuak zituzten bai oinak baita eskuak ere. Askatasunagatik borrokan arituak ziren, huraxe galtzeko. Handik aurrerakoa ezagun zuten, mundu guztiak zuen ezagun Kubako uharte ederrean kokatzen zen ankerkeriaren eta krudelkeriaren bizitokia. Izen bereko hiri baten ondoan zegoen base militarra zeramatzaten zazpi "Al-Qaedako terrorista" hauek. Musika doinuak zabaldu ziren aire bero eta lehorrean zehar, estatubatuar zaurituen sufrikarioa laguntzeko edo, morfinaz lepo egon arren.

Bazen lur bat,

Denok desiratua.

Bazen lur bat,

Denek defendatua.

Urrunetik iritsitakoek,

Zuten lur hura hartua.

Eurena bailitzan,

Menperatua.

Askatasun gerlariak,

Lur hura zuten maite.

Gerlari prestuek,

Askatu zuten aberria.

Freedom Fighters...

Doinu haiek entzuten ari zela sartu zuten Salim hegazkinean, egunetako torturen ostean, ezin imajina zezakeen ezer okerragorik. Ezin pentsa zezakeen Guantanamo zain zuena are beltzagoa eta okerragoa izan zitekeenik. Abesti eder hura entzuten zuen

bitartean, bera borrokara eraman zuten zergatiez gogoratu zen, bere herrialdearen defentsaz, eta inbaditzaileez. Bere askatasuna ebatsi zioten inbaditzaileez.

Roberti ere gustatu zitzaion abestiaren letra, askatasunari zegokion zatia bereziki. Huraxe zen euren betebeharra Iraken, hartara joan zen bera gerrara. Bere burua *freedom fightertzat* zuen. Irakiarrak askatzera joan ziren eta horixe egiten ari ziren. Irak terroristez garbitu.

Biak borrokatu ziren askatasunaren izenean, baina biek patu oso ezberdina zuten aurrean. Bi gerlari, bi patu, askatasun bakarra.

*Gerlariak ez du inoiz amore ematen,
Eusten dio, azkenera arte,
Azken odol tanta isuri arte,
Askatasun gerlariak ez du etsitzen...*

***Eñaut Agirre Iturrioz
DBHO 2***